

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure bezero nagusiak, maila ekonomiko erdi-altua daukaten enpresak, elkarteak, erakundeak... eta abarrekoak izango dira. Izan ere, eskaintzen dugun produktua ez dago denontzat eskuragarri. Horren harira, aipatu beharra daukagu, ez direla izango edozein enpresa, elkarte edo erakunde, baizik eta maila ekonomiko altukoak, hala nola, eskola eta ikastola pribatuak edo kontzertatuak, herrietako ludotekak, herri liburutegiak...

Herrietako ludotekak eta liburutegiak, funtsezko bezeroak izan daitezkeela, izan ere, herriko elkarteak edo erakundeak izanda, diru publikoz finantzatuta izango litzake, eta dakigunez, udaletxeak diru asko izaten dute.

Horrez gain, aipatu nahi dugu, gure bezeroak ez direla soilik erakunde edo elkarte publikoak izango. Hain zuzen ere, haurren aisialdiarekin zerikusia duten espazio edo eremu guztiekin zerikusia dutenak.

Gure produktua maila ekonomiko handiko pertsonentzat dela diogunean, ez dugu inor diskriminatu nahi, ezta gutxiago ere. Baina jakin badakigu, sortu dugun produktua gama altukoa eta prezio altukoa dela. Beraz, argi dago edozeinek ezin duela onartu, eta horregatik murrizten dugu gure bezeroen profila; zehazkin maila ekonomiko handiko enpresei.

Bukatzeko, gustauko litzaiguke gure bezeroen ezaugarri zehatz batzuk finkatzea:

- Haurren aisialdiko erakunde, elkarte, kooperatiba, enpresa, edo udalak; hau da, ez partikularrak
- Maila ekonomiko erdi-altuko edo altukoak
- Haurren aisialdirako bideratuko dutenak
- Aldaketei beldurrik ez diotenak
- Berritzaileak. Teknologia berrietara moldatzen direnak
- Ausartak

Hasiera batean Euskal Autonomia Erkidegoan zerbitzua emango dugu, gehien bat Bizkaia eta Gipuzkoan, jada, gure xedea Durangon egongo delako. Momentuz zentratu garen eskola zein erakunde edo elkarteak hurrengo listan agertzen dira.

Herria	Erakunde/Elkarte etab.	Zergaitik?
Durango	Nevers	Teknologian sinesten dutelako eta maila altuko eskola pribatu bat delako.
Zornotza	Herriko liburutegia	Teknologian sinesten dutelako, eta bertako udalak, ekonomikoki ahal duelako.